

Aiako harria natura-parkea ARDITURRI PARKETXEA OIARTZUN 2022



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN



EZAGUTU MINERALAK



Abiapuntua eta helmuga: **Arditurri meategia, Oiartzun**

Jarduera-mota: **ibilaldi gidatua**

Hartzaileak: **LH 3. zikloa, DBH eta Batxilergoa**

Iraupena: **2-3 ordu**

Prezioa: **6,35 € ikasleko (meategia + ibilbidea)**

DESKRIBAPENA

Jarduera honetan mineralak egiten duten bidaia errepikatuko da: lurrazpitik aire zabalera hain zuzen ere. Lehenik eta behin Arditurriko meategia barrutik ezagutuko da. Bertan, Aiako Harriaren ezaugarri geologikoak eta aberastasun minerala lantzeaz gain, erromatar garaiko meatzaritza eta industria garaikoa alderatuko dira.

Ondoren, ibilbide zirkular baten bidez, meatzaritzak inguruan utzi dituen aztarnak ezagutuko dira. Askotariko paisaiak aztertuz elementu natural eta antropizatuen bereizketa landuko da. Era berean, inguruko basoak eskaintzen dituen altxorak ezagutuko dira.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Arditurriko meatze guneak erabateko meatze-paisaia eskaintzen du, oraindik ikusgai baitira hala nola zerura irekitako harrobiak, esterilen zabortegiak, plano inklinatu eta lur-berdinketak, meatze-sarrerak, ustiapen garaiko eraikinak eta baita garai batean minerala Pasaiako portura eramateko erabiltzen zen trenbide zaharraren bidea ere, gaur egun bidegorri bilakatua. Lur azpian berriz gizakiaren eragina handiagoa da; hainbat kilometro galeria aurkitzen baitira bertan, meatzaritza-lana eta erauzketarako gune ezberdinen sarea osatuz. Duela 2.000 urte ezkerotik ia jarraian ustiatuak izan diren meazulo bakarrenetakoak dira Arditurrikoak.